

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremana pertsonala zein ordenagailu bidezkoa izango da. Zalantzarik izan ezker, gure web gunean, enpresaren telefonoa eta emaila eskuragarri izango dute edozer gauza galdetzeko. Hala ere BiziCleanen inguruko dena dakien bat egongo da.

Lokaleko langileak ez ditu erabiltzaileak kontrolatu behar, bizikletaren sistema aurreratuari esker, kontsumitzailea zenbat denboraz egon den eta zenbat ordaindu behar duen zehazten baitu. Baina bai ordea, arazoren bat balego martxan jartzeko bizikleta, edo eta laguntza emateko behar duenari. Lokalean bertan langileak informazio guztia azaldu diezaioke edonori eta baita bazkide izateko txartela egiten lagundu.

Web gunean ere, lokalari buruz informazioa guztia egongo da; non ekoizten den eta ze material erabili diren, non aurki daitezkeen BiziClean-en zerbitzu puntuak... Hori guztiaz gain, bazkide izendatzeko aukera ere ematen du. Bazkide bihurtzeko, formulario bat bete beharko dute, beren datu pertsonalekin eta txartela zenbakia jarritz. Beste modu bat ere egongo litzateke, teknologia gaietan oso jaiok ez direnentzat, hots, gure webguneko telefono zenbakira deituta edo lokal batera hurbilduz.